

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**Ingurumen eta Hirigintza Sailaren urtarrilaren 15eko 8 /2019 Foru Agindua, Aramaioko Arexola, Arriola, Barajuen, Suña, Uribarri eta Zabola landa guneen antolamenduari buruzko plan bereziaren ingurumen txosten estrategikoa egitekoa**

“Aramaioko Arexola, Arriola, Barajuen, Suña, Uribarri eta Zabola landa guneen antolamenduari buruzko plan bereziaren” izapidetzeak ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatua izan behar du, eta ebaluazio hori ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen bitartez arautzen da.

Prozedura horren barruan, Ingurumen eta Hirigintza Sailak plan berezi horri buruzko ingurumen dokumentu estrategikoa jaso zuen Aramaioko Udalak igorriarik, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioarenak, araututako gutxienezko edukiari jarraituz, bai eta plan bereziaren hirigintza dokumentua ere.

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, lehen aipatutako dokumentazio hori jaso ondoren, kontsultak egiteko aldiari hasiera eman zion eragindako administrazio publiko eta pertsona interesdunei dagokienez, 21/2013 Legearen 30. artikuluan ezarritako moduan.

Ebazpen honen oinarri den ingurumen txosten estrategikoa 2019ko urtarrilaren 8an eman du Ingurumen Iraunkortasun Zerbitzuak (18/98 espedientea).

#### **1. Plan bereziaren ezaugarrien laburpen txikia. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa. Aztertutako aukerak**

##### 1.1. Plan bereziaren ezaugarrien laburpena:

Aramaioko landa guneei dagokienez, jarduketako oinarrizko irizpideek behin betiko 2017ko abenduaren 14ko 357/2017 Foru Agindu bidez onetsitako agirian zehaztutakoa betetzen dute. Agiri hori Aramaioko hiri antolamendurako plan orokorraren espedientearena da eta udalerriko landa guneei eta beste alderdi batzuei buruz honakoak daude xedatuta bertan:

- Eraikigarritasuna eta etxebizitza kopurua % 50era mugatu zen, Lurzoru eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 29.5. artikulua arabera.

- Jada badauden eta aurreikusita dauden baserrien artean ezin dira hogeita bost baserri gaintitu, Lurzoru eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 29.5. artikulua arabera.

- Eraikigarriak diren lurzatiek gutxienez sarbide zuzena izan beharko dute jada eraikita dauden bide publiko batetik, eta horrek esan nahi du sarbide zuzenik ez duten lurzatiengan ezin izango dela eraiki.

- Jabari publikoa babesteko mugak eta zortasun eremuak: lurzatiak azpiegitura orokorren, landa bideen eta/edo ibilbide berdeen babes eremuen eraginpekoak dira.

- Lurzoru ez urbanizagarriaren sailkapen globalaren baldintzatzaile gainjarriekiko lurzatiaren eragina murrizteko baldintzak:

- Paisaia singularra eta nabarmendua.
- Europar Batasunaren intereseko habitatak.
- Korridore ekologikoen sarea.

- Lurzatiek tokiko landaredian izan dezaketen eraginak murrizteko baldintzak:
  - Harizti azidofiloa eta harizti baso misto atlantikoa.
  - Hariztien gaztaroko fasea edo fase andeatua.
- Lurzatien ezaugarri geometrikoak eta eraikuntza baldintzak kontuan hartzea 1.6.3.2. artikuluan jasotako eskakizunekin bat eginez. Eraikuntza ordenantzak eta hirigintza araubidearen B. agiriaren B.1. liburuaren landa guneeak erabiltzea.
- Lurzatien ezaugarri topografikoak kontuan hartzea.
- Diputatuen kontseiluaren abenduaren 1eko 78/2009 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Arabako lurzoru urbanizaezineko landa guneeetako nukleoaren inbentarioan definitutako landa guneearen espazio aglutinatzaileetatik lurzatiek duten hurbiltasuna kontuan hartzea.
- Kultura interesekoak diren ondasunen paisaia indartzea.

Plan berezi honen bitartez Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean (HAPO) aurreikusitako etxebizitzak gehituko dira udalerriko landa guneeetan, eta gainera jada eraikita dauden base-rietako eraikigarritasuna % 25 gehitu nahi da eta baserri bakoitzeko gehienez ere 3 etxebizitza ezarri nahi dira.

#### 1.2. Ebaluatu beharreko eremu geografikoa:

Eremua Aramaioko udalerrian dago, Gasteiz iparraldetik 30 kilometro ingurura. Udalerriak 78,83 km<sup>2</sup>-ko azalera eta batez beste 301 metroko altitudea ditu, eta % 75 herri basoa da.

Plan berezian jasotako jarduketek kokapen zehatzak Aramaio udalerriko Arexola, Arriola, Barajuen, Suña, Uribarri eta Zabola landa guneeetan daude.



#### 1.3. Aztertutako aukerak:


Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan azaltzen denez, aukera hauek hartu dira kontuan:


- "0" aukera (Aukeratu ez dena): Ez jardutea litzateke, eta beraz ez zen ezarriko indarrean dagoen Hiri Antolamendurako Plan Orokorra, zeinaren arabera landa guneeetako etxebizitzak gehitzea aurreikusi den.

–“1” aukera (Aukeratu ez dena): Plan orokorrean etxebizitza berriak gehitzeko egindako proposamena aplikatzea litzateke. Ondorengo taulan aukera honetan jasotako etxebizitza berrien kopurua dago jasota:



	INDARREAN DAGOEN HAPO AGIRIAK ZEHAZTEN DITUEN ETXEBIZITZA BERRIEN KOPURUA
AREXOLA	4
ARRIOLA	4
BARAJUEN	2
SUÑA	5
URIBARRI	3
ZABOLA	5
<b>GUZTIRA</b>	<b>23</b>

Hurrengo irudian plan berezi honetako “1” aukeran (indarrean dagoen hirigintza antolamenduarekin bat eginez) etxebizitza berriak gehitzea aurreikusi diren gune guztiak agertzen dira, “1” zenbakiaren bitartez adieraziak.





“2” aukera (Aukeratu dena): Plan orokorrean etxebizitza berriak gehitzeko egindako proposamena aplikatuko da, eta beraz plan bereziaren “1” aukeran aurreikusitako gehikuntzekin bat egingo da, aurreko atalean adierazi direnekin hain zuzen ere. Aukera honen bitartez gainera jada badauden baserrien eraikigarritasuna % 25 gehituko da eta baserri bakoitzeko gehienez ere 3 etxebizitza ezarriko dira, honako irudietan jasota dagoen moduan, eta legenda honekin bat eginez:







Ondorengo taulan aukera honetan jasotako etxebizitza berrien kopurua dago jasota:

	INDARREAN DAGOEN HAPO AGIRIAK ZEHAZTEN DITUEN ETXEBIZITZA BERRIEN KOPURUA	ERAIKITA DAUDEN BASERRIAK	GEHIKUNTZA
AREXOLA	4	14	18
ARRIOLA	4	13	17
BARAJUEN	2	25	27
SUÑA	5	14	19
URIBARRI	3	8	11
ZABOLA	5	19	24
<b>GUZTIRA</b>	<b>23</b>	<b>93</b>	<b>116</b>

Aukeren balorazioa:

Sustatzaileak emandako dokumentazioan aztertutako aukeren ingurumen analisia egin da, eta analisi horren laburpena hauxe da:

INGURUMENEAN IZAN DITZAKEEN ONDORIOAK	0. AUKERA	1. AUKERA	2. AUKERA
Lurzoruaren okupazioa	Ez	Bai	Bai
Landaredian eraginak sortzea	Ez	Bai	Bai
Lehentasunezkoak ez diren habitatetan eraginak izatea	Ez	Bai (6510 habitata)	Bai (6510 habitata)
Lehentasunezko habitatetan eraginak izatea	Ez	Ez	Ez
Nekazaritza balioa duten lurzorueta eraginak izatea	Ez	Ez	Ez
Uholde arrisku baldintzetan eraginak izatea	Ez	Ez	Ez
Ibai eta erreken bazterrak hobetzea	Ez	Ez	Ez
Faunan eraginak izatea	Ez	Ez	Ez

2. aukera gauzatzea erabaki da hiri bilbeko lurzoru antropizatuaren aprobetxamendua optimizatzearen eta hiri bilbe konpaktuen bidez modu jarraituan hiria handitzearen artean abantailak daudelako.

## 2. Kontsulta fasearen laburpena

2018ko ekainaren 28an Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak hasiera eman zion eragindako administrazio publikoei eta interesa duten pertsoneri kontsulta egiteko faseari, araututako prozedurari jarraituz. Jarraian, kontsultatu zaien erakunde, entitate eta elkartearen zerrenda jarri da, eta haietatik zeinek erantzun duen adierazi da:

URA Uraren Euskal Agentzia	√
Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza	√
Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza	
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza	
Arabako Natur Institutua	
Ekologistak Martxan Araba	
Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea (GADEN)	
Eguzki talde ekologista	
Hontza	
Gaia elkarte	
Gasteiz Zero Zabor	
Mendizale Federazioa. Ingurumen Atala.	
UAGA	
IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	√
Arabako Kontzejuen Elkarte	
SEO Birdlife	
Aramaio Udal	
Gorbeialdeko kuadrilla	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza	√

Hona hemen jaso diren erantzunetan adierazitakoak, laburbilduta (alegazio edo adierazpenen kopia osoa Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 18/98 espedientean eta [www.araba.eus](http://www.araba.eus) webgunean daude jasota):

- Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak honakoa jakinarazi zuen: “Planaren memorian jada jasota daude azterketa gunean eta inguruan lokalizatutako eremu arkeologikoak, eta adierazi denaren arabera Euskal kultur ondarrari buruzko 7/1990 Legean xedatutakoa bete beharko da. Artikulu honetan jasotakoa betetzen baldin bada (33. orrialdeko kultura ondareari buruzko 6.12. artikulua), ondare arkeologikoa babestuta egongo da eragin posibleen aurrean”

- URA - Uraren Euskal Agentziak lehenengo txostena eman zuen 2018ko uztailaren 12an. Bertan, honako hau adierazi zuen: “Zuen eskaera Kantauriko eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoari igorri zaio, erreferentziako gaiari buruzko txostena eman dezan, komenigarritzat jotzen badu, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioarenak, ezarritakoaren arabera”

URA - Uraren Euskal Agentziak bigarren txostena bidali zuen 2018ko irailaren 11n, eta plan bereziaren laburpena egin ondoren, kontuan hartzeko hainbat alderdi nabarmendu zituen:

- Jabari publiko hidraulikoa (JPH) eta bere babes eremuak babesteari dagokionez: “Arriola landa guneko 3-15, 3-17 eta 3-90 lurzatietan eraiki daiteke, eta horiek Telleria erreka eskuineko aldeko polizia eremuetan kokatuta daude. (...). Jabari publiko hidraulikoari eragiten dioten jarduketak guztiak edo horren babes eremuetan daudenak (zortasun eta polizia eremuak) Uraren Euskal Agentziaren aurretiazko administrazio baimena izan beharko dute”

- Plan hidrologikoko babes zonen erregistroari lotuta, zehaztu da halako zenbat dauden Aramaioko udalerrian (15) eta zer araudi dagokien.

- Baliabide hidrikoen hornidura eta eskuragarritasunari dagokionez: “Plan berezi honen hirigintza izapidetzean zehar baliabide hidrikoen eskariari buruzko azterketa gehitu beharko da landa guneetan aurreikusitako eraikuntza berrien hornidura bermatzeko, eta horien jatorria justifikatu egin beharko da (...). Era berean, plan berezian landa guneen hornidura sareen eskema agertu beharko da”

- Saneamenduari dagokionez: Beste kontu batzuen artean jakinarazten da: “Arexola eta Arriola landa guneetan aurreikusitako etxebizitza berri posibleei dagokienez, ez da baimenduko aurreikusitako garapenezako arazketa indibidualeko aukerarik, eta gainera, horiek eraikitzea Ibarra guneko isuriak “Deba Garaio” saneamendu nagusiari lotuta egotearen menpe egongo da. Barajuen, Urizarri, Suña eta Zabola landa guneei dagokienez, egiaztatu egin beharko dute putzu septikoen plan berezian proposatutako etxebizitza gehikuntzaren ondorioz sortu daitekeen isuri berria jasotzeko gaitasuna dutela. Gainera, Zabolan iragazki biologiko bat ezarri beharko da landa gunean sortutako hondakin uren arazketa osatzeko. Bukatzeko, plan berezian landa guneen saneamendu sareen eskema agertu beharko da”

- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak txostena eman zuen, eta bertan, plan bereziaren laburpen motza egin ondoren, honakoak adierazi ziren: “Hiri antolamendurako plan bereziaren jarduketak aipatutako landa guneetan bakarrik gauzatuko denez, ez da eraginik sortuko landa lurzoruan eta nekazaritza eta abeltzaintza jardueran”

- Arabako Foru Aldundiko Ondare Historiko eta Arkitektonikoko Zerbitzuak hauxe adierazi zuen: “Agiri teknikoa aztertu ondoren ikusi da nahiz eta plan berezia idatzi zuen lantaldeak adierazi zuen planaren xedea aipatutako landa guneen antolamendu xehea zehaztea zela, ez da agiri grafikorik aurkeztu, eta hori ezinbestekoa da (...). Informazio grafikoa falta denez ezin da txosten tekniko zehatzagorik egin, eta beraz, hirigintza izapidetze prozeduran gauzatuko da”

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondare Zuzendaritzak txostenean hauxe jakinarazi zuen: “Ingurumen txostenean mugatu egiten da plan bereziak ustezko eremu arkeologikoetan izango dituen ondorioak, eta plan orokorrean jasota eta babestuta dauden intereseko elementu arkitektonikoak ez

dira aipatu bertan (...). Kontuan hartu beharko litzateke eta xehetasunez aztertu beharko litzateke planak plan orokorraren ondare kultureko katalogoan babestutako eta planaren xedeko lurzatieta lokalizatutako elementu guztietan izan ditzakeen ondorioak, hala, neurri babesleak, zuzentzaileak eta/edo osagarriak proposatzeko. Era berean gomendatu zen gune bakoitzaren lurzatiak mugatzen dituen plan orokorrean babestutako higiezin arkitektonikoak eta arkeologikoak gehitu, kokatu eta planimetriari adierazi beharko liratekeela horiek kultura ondasun gisa kalifikatzeko, Euskal kultur ondarrari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearekin bat eginez. Horiek toki mailan babestuta daude, plan orokorreko katalogoetako zerrendekin bat eginez”

• IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak azaldu duenez, “Erakunde honetan ez dago jasota aipatutako kokapenetan lurzorua kutsa dezakeen jarduerarik egon denik; horrenbestez, ez dago jasota lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan”. Bukatzeko, honela dio: “Kutsadura zantzurik agertuz gero, Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazi beharko zaio, 4/2015 Legearen, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoaren, 22. artikuluan ezarritakoa betez”

### 3. Ebaluazio prozesuaren analisia. Ingurumen eragin nagusiak

Plan berezitik eratorritako ingurumen eragin nagusiak paisaia, landaredian eta lurzoruan gauzatuko direla aurreikusi da. Neurri apalagoan kontuan hartu beharko dira uretan sortuko diren ondorioak, bereziki zenbait eremu zehatzetan.

Beharrezkoa da adieraztea plan bereziaren alor guztia Arabako Lurralde Historikoaren paisaia singularren eta nabarmenen katalogoan zehaztutako eremuan dagoela (katalogo hori Diputatuaren kontseiluaren irailaren 27ko 829/2005 Akordioaren bitartez onetsi zen) paisaia nabarmen gisa, “Oleta-Arangio-Ibarra (Aramaio), 28. kodearekin. Beraz, guneen urbanizazioan beharrezko paisaia babesa kontuan hartu beharko da.

Gainera, gune guztietan intereseko landaredia dago, nagusiki 6510 zenbakiarekin katalogatutakoa: “Altitude baxuko uztako landa pobreak (*Alopecurus pratensis*, *Sanguisorba officinalis*)” eta tokiko zuhaitzak, besteak beste zenbait haritz (*Quercus robur*) Arriolan edo arte handiak (*Quercus ilex*) Suñan. Zuhaitz horiek eraginak jasan ditzakete erreferentziazko plan berezian jasotako jarduketak gauzatzen baldin badira.

Beste alde batetik, etxebizitza berriak egiteak hornidura handiagoa eta isurketa gehiago eragiten ditu; azkenak behar bezala kudeatu behar dira horien saneamendu zuzena bermatzeko. Horri dagokionez, ingurumen ebaluazio sinplifikatu estrategikoko prozedura honetan URA-Uraren Euskal Agentziak zenbait ohar egin ditu eraikuntzen hornidura eta saneamenduari dagokionez, eta horiek bereziki kontuan hartu beharko dituzte etxebizitza berrietako sustatzaileak.

Bukatzeko adierazi behar da ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuko prozedura honetan Eusko Jaurlaritzako Ondare Zuzendaritzak zenbait ohar egin dituela, eta nagusiki adierazi zuen, txosten honen aurreko ataletan zehaztu bezala, “kontuan hartu beharko litzatekeela eta aztertu egin beharko litzatekeela, xehetasunez planak plan orokorraren kultura ondarearen katalogoan babestutako elementu guztietan izango litzuzkeen eraginak eta planaren xedeko lurzatieta kokatuta daudenak, beharrezko neurri babesgarriak, zuzentzaileak eta/edo osagarriak proposatzeko”

### 4. Ondorioak. Ingurumen baldintzak

Neurri handiko ingurumen ondorio negatiboak ahalik eta gehien murrizteko “Aramaioko Arexola, Arriola, Barajuen, Suña, Urizarri eta Zabola landa guneen antolamendurako plan bereziak” bete egin beharko ditu sustatzaileak ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuko prozeduran adierazitako dokumentazioan deskribatutako baldintzak. Hala, plan bereziaren hirigintza agiriaren 10. atalean deskribatutako ingurumen integratzioko neurriak jaso beharko lirateke (neurri prebentiboen, zuzentzaileen eta osagarrien proposamena klima aldaketa kontuan hartuz), baita plan bereziaren hirigintza agiriari egindako ingurumen agiri estrategikoaren 11. atalean (hiri antolamendurako plan bereziaren ingurumen jarraipena egiteko aurreikusitako neurrien deskribapena) zehaztutakoak ere. Horrez gain, honako neurriak hartu beharko dira baita ere:



1. 1.6.2.3. artikulutik ateratako testu hau jaso beharko da plan bereziaren araubidean: “Eremuetako erabilera eta eraikuntzei ezarritako mugapen osagarriak, baldintza gainjarriekin eta lurzoru urbanizaezinaren azpikategorian”, indarrean dagoen HAPO araubidetik (behin betiko onespena 2012/09/05eko ALHAOn argitaratua): “Eraikuntza erabilerak baimentzea eta paisaia singular eta nabarmenetan eraginak dituzten bestelako erabilerak baimentzea, bereziki Arabako Lurralde Historikoko katalogoan jasotakoak (...), balorazio espezifikoko aurretiazko txosten baten mende egongo da. Txosten hori ingurumen ondorioen neurriari buruzkoa izango da eta paisaia alorrean eskumenak dituen foru organoak egingo du. Hala, paisaia ondorioen neurriak aztertuko ditu eta hala badagokio hartu beharreko neurri babesleak eta/edo zuzentzaileak proposatuko ditu”. Era berean hauxe adierazi zen: “Paisaia singularrak eta nabarmenak jasotzen dituen lurzoru kalifikazioak baimendutako erabilerak, eraikinak, eraikuntzak eta instalakuntzak garatzen dituzten planak edo proiektuak ingurumen eraberritze eta paisaia egokitzapen proiektua izan beharko dute, horien inguruarekin bat eginez, eta hori guztia paisaia eraberritzeko jarduketek sortu eta egikaritu ahal izango dituzten ondorio negatiboak murrizteko”.

Hala, eta kontuan hartuz plan berezian Diputatuen kontseiluaren irailaren 27ko 829/2005 Erabaki bidez onetsi zen Arabako Lurralde Historikoko paisaia singularren eta nabarmenen katalogoan sailkatutako eremu nabarmen bat dagoela, hau da, Oleta-Arangio-Ibarra (Aramaio) eremua, 28. kodea duena, plan berezian jasotako jarduketak gauzatzen baldin badira HAPOren 1.6.2.3. artikuluan xedatutakoa bete beharko da.

2. Plan bereziaren araubidean berriz ere Aramaioko HAPOren 1.6.2.3. artikulua jaso beharko da (behin betiko onetsi zen 2012/09/05eko HAPOn), eta horrek hitzez hitz hauxe dio erkidegoko intereseko habitatetan sortu litezkeen eraginei buruz: “Erkidegoko intereseko habitatak dau den lurzoruen kalifikazioan baimendutako erabilerak, eraikinak, eraikuntzak eta instalakuntzak garatzen dituzten planek edo proiektuek ingurumen eraberritze eta paisaia egokitzapen proiektua izan beharko dute, horien inguruarekin bat eginez”.

3. Eraikinak handitzean eta eraikuntza berriak sortzean kontuan hartu beharko da paisaia balio garrantzitsua duten tokiko zuhaitz espezieak babestea.

4. Gainera, plan bereziaren araubide atalean honako baldintzak jaso beharko dira. Baldintza hauek etxebizitzak handitzeko eta etxebizitza berriak eraikitzeko obrak egikaritzean aplikatu beharko dira:

– Upeltegia eraikitzeko nahiz hartuneak eramango dituzten zangak egiteko landare lurrezko geruzak kenduz gero, hautatu egin beharko dira kendu beharreko lurrak, eta, ahal dela, berehala banatuko dira berriro, edo, ezin izanez gero, pilatu egingo dira, ahal dela plan bereziaren eremuko gunen batean. Gehienez 2,5 metro garai izan ditzakeen sekzio trapezoidaleko multzotan egin behar da pilaketa. Landaretza eta, halakorik ezean, nekazaritza lurzorua lehengoratzeko lanetarako erabiliko da landare lurra.

– Plan berezia garatzeko jardunak gauzatzean, obrek irauten duten bitartean, lubrifikatzailak edo erregaiak biltegitartzeko ontzi estankoak, biltegi iragazgaitzak edo beste sistema batzuk erabiliko dira. Debekaturik dago erabilitakoak isurtzea; baimendutako kudeatzaile bati eman behar zaizkio horiek. Debeku hori sortu daitezkeen hormigoi hondarrentzako, eraikin materialentzako, lurrentzako eta abarrentzako aplikatu beharko da, eta horiek guztiak baimendutako hondakindegira edo zabortegira bidaliko dira. Ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan adierazi bezala kudeatu beharko dira eraikuntzako eta eraiste lanetako hondakinak. Dekretu horrek eraikuntzako eta eraispentako hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu.

Horrenbestez, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzkoak, 40. artikuluan ematen dizkidan eskumenak erabiliz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. "Aramaioko Arexola, Arriola, Barajuen, Suña, Uribarri eta Zabola landa guneen antolamendurako plan bereziaren" ingurumen txosten estrategikoa egitea.

Bigarrena. Abenduaren 9ko 21/2013 Legea, ingurumen ebaluazioarena, betetzeko, ingurumen txosten estrategikoa ingurumen irizpen erabakigarria izango da neurri eta baldintzei dagokienez.

Hirugarrena. Agintzea ingurumenaren txosten estrategiko hau ALHAOn argitara dadila.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 15a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua*  
**JOSEAN GALERA CARRILLO**

*Ingurumen eta Hirigintzako zuzendaria*  
**AMAIA BARREDO MARTÍN**